

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barandiaran fundazioak bere sorreraren 25. urteurrena ospatuko du mahai-inguruen programa batekin

*Fundazioaren patronatua Iruñean bildu da gaur, Kulturako zuzendari nagusi Fernando Perez bertan zela*

Miércoles, 16 de marzo de 2016

Barandiaran fundazioaren patronatuko kideek beren oniritzia eman diote gaur erakundeak sustatuko duen kultur programari, haren sorreraren 25. urteurrena ospatze aldera. Urri eta abendu artean egingo diren lau mahai-ingurutan oinarritzen da, fundazioan parte hartzen duten bost lurraldeetako hiriburuetan: Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi. Mahai-inguruek Jose Migel Barandiaranen figura aztertuko dute lau ikuspegitatik: "Barandiaran eta Europa", "Barandiaran, zientifikoa eta fedea", "Barandiaran eta euskal gizartea" eta "Egungo gizarteari aplikatutako Barandiaranen balioak".

Nafarroako Artxibo Orokorreko egoitzan egindako patronatuko bilerak erakundearen aurrekontua onartu du ere, eta Barandiaran Bekaren deialdia 2016an berriz abian jartzea erabaki du, 2012. urtetik bertan behera geratu zena.

Patronatuko kideei, haien artean Kulturako zuzendari nagusi Fernando Perez dago, "Folklore" aldizkariaren egoerari buruzko informazioa eman zaie ere; argitalpen hori Euskal Autonomia Erkidegoan egun argitaratzen diren aldizkari zientifikoetan zaharrena da, Barandiaranek sortu zuen 1921ean, eta Eusko Ikaskuntzaren argitalpen modura argitaratu zen.

Bilera horretan izan dira ere: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Sailburutzako Kabineteko buru Jose Manuel Bujanda; Gipuzkoako Aldundiko ordezkari Maria Jose Telleria; Bizkaiko Aldundiko Kultura zuzendari Gonzalo Olabarria, eta erakunde bereko Kultura Zerbitzuko buru Andoni Iturbe.

Ataungo Udalaren izenean, bertako alkate Asier Rodriguez eta Kulturako zinegotzi Karmele Aierbe izan dira. Eusko Ikaskuntzaren aldetik, fundazioko lehendakari Josemari Vélez de Mendizabal eta bertako idazkari Arantza Cuesta, bai eta Eusko Ikaskuntzako bi patronoak ere, "aditu" gisa: Nafarroako Gobernu Museo Zerbitzuen zuzendari Susana Irigaray eta Jexux Altuna, bai eta Barandiaran fundazioko idazkari tekniko Zuriñe Velez de Mendizabal ere.

### Barandiaran fundazioa

Jose Miguel de Barandiaran fundazioa Jose Migel Barandiaranek eta Eusko Ikaskuntzak sortu zuten 1988ko ekainean. Patronatu batek agintzen

du, eta honako hauen babes du: Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Haren helburua Jose Migel Barandiaranen bizitza aztertzea da, haren pentsamendua eta zientzia nahiz kulturari egindako ekarpena aztertzea; argitaratutako eta argitaratu gabeko haren ekoizpen zientifikoa guztia jasotzea, bere obraren argitalpen kritiko zaindua sustatuz, eta hark hasitako ikerketan lanarekin jarraitzea, historiaurrea, arkeologia, antropologia eta etnografiaren alorretan, bereziki, honako hauen bidez: ikerketako programak eta bekak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak edo antzeko beste jarduerak batzuk, erakunde horrek sustatutako ikerketen emaitzak argitaratuz.

Fundazioaren patronatuak urtean bi bilera egiten ditu, bata martxoan urteko aurrekontua eta aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko, bai eta urteko programazioa onartzeko ere; eta beste bat, azaroa aldera, jardueraren balantzea egiteko eta datorren urterako aurrekontuaren proposamena proposatzeko. Bigarren bilera hori Ataunen egiten da, Sara Etxean, Barandiaranek bere azken urteak bizi izan zituen etxean, eta bertan dago bere izena daraman museoa ere; lehenengoa, berriz, lau hiriburutan egiten da, txandakatuz.